

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

5206

332/2024 DEKRETUA, azaroaren 12koa, Finantza Politikako zuzendaria kargutik kentzeko dena.

Azaroaren 10eko 263/2020 Dekretuaren bidez, Arantza Larrauri Aranguren andrea Finantza Politikako zuzendari izendatu zen. Hala ere, pertsona hori titularra zen organoa Finantza Politikako eta Gizarte Aurreikuspeneko zuzendaritza izatera igaro da, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organiko eta funtzionala onartzen duen urriaren 29ko 313/2024 Dekretuaren ondorioz. Hori dela eta, egoera berrira egokitzeko, beharrezkoa da Arantza Larrauri Aranguren andrea desager-tutako kargutik kentzea eta, ondoren, egungo karguan izendatzea.

Horrela, Jaurkitzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18. j), 26.6 eta 29. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Ogasun eta Finantzako sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kon-tseiluak 2024ko azaroaren 12an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.- Arantza Larrauri Aranguren andrea Finantza Politikako zuzendari kargutik kentzea, betetzen duen karguaren izena aldatu delako.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek 2024ko azaroaren 11tik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko azaroaren 12an.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Ogasun eta Finantzako sailburua,
NOËL D'ANJOU OLAIZOLA.